

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**13491** *33/2020 Errege Lege Dekretua, azaroaren 3koa, Estatuaren eremuko gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeei laguntzeko premiazko neurriak hartzen dituen.*

COVID-19aren pandemia globala oso azkar zabaldu da, eta ekarri duen osasun-larrialdia oso gogorra izan da. Horrek izugarritzko eragina eduki du Espainiako gizartean, ekonomian eta lan-arloan. Hori dela eta, noizbait herritarren osasun-beharrizanak motelduko badira ere, pentsatzekoa da gutxika-gutxika gero eta herritar gehiagok edukiko dituztela bestelako beharrizan sozioekonomikoak, egoera txarrean dauden herritarrek batez ere.

Beharrizan horiek lehendik ere bazeuden, jakina, baina osasun-krisi honek larritu eta dibertsifikatu egin ditu. Horregatik, zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoaren agindu inplizitua aintzat hartuta, botere publikoek presaz heldu behar diete osasun-krisiaren ondorio sozioekonomikoei, herritarren bizimodua azkar narriatzen ari baita.

Ezin ukatuzkoa da azken hamarkadetan gizarte-ongizatearen arloan gero eta garrantzitsuagoa dela gizarte-ekintzako hirugarren sektoreak administrazio publikoekin lankidetzan eta haien laguntzarekin eta sustapenarekin egiten duen lana. Gaur egun, gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko entitateen lana funtsezkoa da herritarren eskubide sozialak bermatzeko, bazterturik gelditzeko arriskuan dauden herritarrenak batez ere.

Horren ildotik, gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko entitateak izugarritzko ahaleginak egiten ari dira, aspaldiko urteetan ez bezalakoak, osasun-krisiak Espainiako herritar askorengan daukan eragin kaltegarria arindu nahian. Entitate horiek azkar ipini dituzte lanean beren baliabideak. Hain zuzen ere, beren bitartekoak erabili behar izan dituzte (langileak, baliabide materialak eta finantza-baliabideak) ustekabeko krisi honek sortu dituen beharrizan sozialei erantzuteko; gainera, uste izatekoa da beharrizan horiek luze joko dutela eta datozen hiletan gero eta larriagoak izango direla. Gizarte-ekintzako hirugarren sektorearen baliabideak osasun-larrialdi honi aurre egiteko erabili behar izateak berekin ekarri du sektoreko entitate nagusien jarduteko gaitasuna asko moteltzea eta haien egitura zentralak erabat ahultzea.

Izan ere, gaur egungo ezohiko egoerarekin (krisia osasunean, ekonomian eta gizartean), besteak beste, izugarri gehitu dira gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko entitateek jasotzen dituzten laguntza-eskaerak, eta, ondorioz, entitateok eskaera guztiei jaramon egin ezinik dabilta, dauzkaten baliabideak ez baitira aspaldi gehitu, edo urritu baitira. Beste alde batetik, enpresetan bezala, gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko elkarteetan ere inoiz ez bezalako komeriak izaten ari dira aspaldion, eta entitate asko kinka larrian daude, ezkutatzeko arriskuan, nahiz eta ezinbestekoak izan herritar askoren ongizatea ziurtatzeko. Hori dela eta, adierazgarria da gizarte-ekintzako hirugarren sektoreak aparteko ahalegin horiek guztiak egin behar izatea 2008ko finantza-krisi globalaren kalteen ajeak oraindik guztiz sendatu ez dituzten egiturez baliatuz.

Bada, aparteko egoera honetan, Gobernuak eskura dauzkan bitarteko guztiak erabili behar ditu Espainiako gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko entitateei laguntzeko. Uda amaitu ondoren, pandemiaren «bigarren olatua» esaten zaiona gertatu da, bai Espainian, bai inguruko herrialde gehienetan (batzuetan, beste batzuetan baino gogorrago). Horrek argi erakusten du berriz ere ezohiko egoera batean barneratu aginean gaudela eta botere publikoek zolitasun handiarekin jokatu beharko dutela ahalik azkarren konponbideak eskaintzeko herritarrei eta gizarte-ongizatearen horniduran eta mantentze-lanetan ari diren eragileei. Azkenaldiko bilakaera historikoaren ondorioz, gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko entitate nagusien egiturak oso ahulak dira krisiak elkarren atzetik eta luzaroan gertatzen direnean, gaur egun bezala. Izan ere, azken hiletan agerian ipini da neurriak

hartu behar direla gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko entitateen lan soziala indartzeko ez ezik baita haien egitura zentralak sustatzeko ere, egitura horiek lanerako ezinbestekoak dira eta. Kontua da, beraz, ahalik azkarren hiru helburu lortzea, ondoren gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko entitateen jardunerako esparru berria antolatzeke behar diren erreformei ekin ahal izateko. Horretarako, erregelamenduz garatu beharko da 43/2015 Legea, urriaren 9koa, Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearena.

Lehen helburua da azkar asetzea zenbait administraziorekin —batez ere, gizarte-ekintzaren arloko eskumenak dauzkaten ministerio-sailekin— luzaroan lankidetzan jardun duten Espainiako gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko entitate batzuen likidezia-beharrizanak. Helburu hori da presakoena eta beharrezkoena Espainiako gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko entitate askoren iraupena ziurtatzeko, eta, horretarako, zuzeneko dirulaguntzak emango zaizkie Espainiako gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko entitate askori. Errege lege-dekretu honen bidez dirulaguntzak zuzenean ematea bat dator 38/2003 Lege Orokorrak (38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzena) 22.2.b) artikuluan ezartzen duenarekin; izan ere, beharrezkotzat jotzen da entitate onuradunei dirulaguntza bermatzea legez ezarriz Estatuako Administrazio Orokorrak ahalik azkarren eman behar dituela laguntzok, eta hori lege-mailako arau batez baino ezin da egin.

Bigarren helburua lehenengoarekin lotuta dago: entitate onuradunak dirulaguntzak jasotzen dituztela bermatzea, datozen hiletan legediaren arabera honelako dirulaguntzak jasotzeko egin beharreko izapideak oztopatzen, geldotzen edo are eragozten dituzten gertaera guztiak gorabehera. Arduraz jokatu behar da, egoera soziosanitarioa kontuan hartuz, eta gerta liteke ezartzen diren neurri batzuek Administrazioaren jarduna nahastea eta moteltzea. Horregatik guztiagatik, kontuan eduki behar da balitekeela aurrekontu-ekitaldian ezin ordaindu izatea entitate onuradun guztiei esleitu zaien diru kopurua. Hala gerta litekeelakoan, eta entitate onuradun guztiek gerta ahala gerta beren dirulaguntza jasotzen dutela bermatu nahian, ezinbestekotzat jo da lege-mailako arau batez baliatzea, bide bakarra baita Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 58. artikuluan xedatzen duenera jotzeko, behar izanez gero.

Hirugarren helburua da hobeto zehaztea zer xedetara bideratu dezaketen botere publikoek gizarte-ekintzako hirugarren sektorearen finantzaketa. Horren ildotik, 7/2013 Errege Lege Dekretuak (7/2013 Errege Lege Dekretua, ekainaren 28koa, Tributuei, aurrekontuei eta ikerketa, garapen eta berrikuntza sustatzeari buruzko premiazko neurriei buruzkoa) 2000. urteko hamarkadako finantza-krisialdiaren azken urteetan sortu ziren beharrizan batzuei heldu zien. Gaur egungo egoera antzekoa da alderdi batzuetan, eta, gizarte-ekintzako hirugarren sektorearen gaitasunari ez ezik, sektoreko entitateen egiturei berei ere eragin die. Horregatik, sektore hori suspertzeko eta eraldatzeko lanak errazteko eta azkartzeko behar den lege-ahalmena edukitzeko asmoarekin, ekainaren 28ko 7/2013 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua aldatzen da, gizarte-ekintzako hirugarren sektorearen sustapena eta modernizazioa gizarte-interesekotzat jotzen diren interes orokorreko jardueren ardatzak izan daitezen eta, horrela, kontuan hartu daitezen finantza-laguntzen oinarri arautzaileak finkatzean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren tributazioan etekineterako ezarritako ehunekoa aplikatuz. Presaka eta nahitaez egin beharreko aldaketa horri ekiteko ezinbestekotzat jotzen da lege-mailako arau batez baliatzea, berriz ere.

Beste alde batetik, kontuan eduki behar da ekintza hauek efizientziaren, azkartasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak aplikatuz egin behar direla, gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko entitateek finantzabideak ahalik azkarren eduki ditzaten batez ere, eta, horregatik, lehendik ere baliagarri dagoen finantza-baliabide bat erabiltzea erabaki da. Izan ere, 6/2018 Lege Orokorrak (6/2018 Lege Orokorra, uztailaren 3koa, Estatuako 2018ko Aurrekontu Orokorreari buruzkoa) ehun eta hirugarren xedapen gehigarriaren lehen apartatuan ezartzen duenaren arabera, Estatuak honako kopuru hau erabiliko du dirulaguntzak emateko gizarte-interesekotzat jotzen diren interes orokorreko jardueretarako (erregelamenduz ezarriko da nola): lege hori indarrean jarri ondoren sozietateen gaineko zergaren zergadunei amaitutako zergaldian dagokien kuota osoaren ehuneko 0,7; ezinbestekoa da zergadunek berariaz adieraztea ehuneko 7 hori jarduera horietarako

erabiltzea nahi dutela. Beraz, baliabide berri bat sortzen da, eta beraren bidez zergadunek esan dezakete beren kontribuzioaren zati bat xede jakin batek eragiten dituen gastu publikoak ordaintzeko erabil daitekeela, hau da, gizarte-interesekotzat jotzen diren interes orokorreko jardueren gastu publikoak ordaintzeko.

Horregatik guztiatik, Gobernuak erabaki du finantza-baliabide hori erabiltzea, hots, sozietateen gaineko zergaren 2018ko kuota osoaren ehuneko 0,7 aplikatuz bildutako kopurua erabiltzea, gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko entitateek berehala likidezia eduki dezaten eta beren lana egin ahal izan dezaten orain arte bezala, ezinbestekoa baita lan hori. Hori gorabehera, baina, beharrezkoa da gizarte-ekintzako hirugarren sektorearen finantzaketaren eta funtzionamenduaren arau-esparrua aldatzea. Egiteko horri 2021. urtean ekingo zaio.

Espainiako Konstituzioaren 86.1 artikulua aparteko eta presako beharrez dagoen egoerarako xedatzen duen aukerari dagokionez, errege lege-dekretu honen edukia arrazoi objektiboetan, egokitasun politikoan eta aparteko presan oinarritzen da —besteak beste, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiren ondorioz oraindik amaitu ez den salbuespeneko egoera larrian—, eta, horregatik, ezinbestekoa da erantzun egokia ematea gizarte-eremuan planteatzen diren premiei, eta errege lege-dekretua berehala onartu behar da.

Konstituzioaren 86. artikulua araberako, Gobernuak errege lege-dekretuak eman ditzake, «aparteko eta presako beharrez» dagoenean, baldin eta xedapenok ez badute eraginik ez Estatuaren oinarriko erakundeentzako antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ez eta autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskunde-zuzenbide orokorrean ere.

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren araberako, tresna zilegia da, baina, horretarako, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro eskatu bezala (6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarria; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarria; 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarria; 189/2005 epaia, uztailaren 7koa, 3. oinarria; 68/2007 epaia, 10. oinarria, eta 137/2011 epaia, 7. oinarria), presako legegintza justifikatzen duen xedea egoera jakin batean laguntzea izan behar da, Gobernuaren helburuen barruan laguntzea betiere, aurreikusten zailak diren arrazoiengatik araudia berehala ematea eskatzen duen egoera batean —esan nahi baita ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentarioarako presako prozedura erabilita beharko litzatekeena baino epe laburragoan—, eta errege lege-dekretua are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean.

Gainera, justifikatu behar da zergatik erabiltzen den lege-mailako arau bat Konstituzio Auzitegiaren araberako erregelamenduz arautu daitekeen gai bat arautzeko, eta, horretarako, Konstituzio Auzitegiak errege lege-dekretuetan lege-mailako araua behar ez duten neurriak ezartzeari buruz emandako doktrina aipatu behar da: Konstituzio Auzitegiaren 14/2020 epaia, urtarrilaren 28koa, Konstituzio-kontrakotasuneko 2208-2019 errekurtsioaz emana (errekurtsio hori honen aurka aurkeztu zen: 7/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Etxebizitzaren eta alokairuaren arloko presako neurriena). Epaia horren 5. oinarri juridikoan auzitegiak honako hau dio: «(...) auzitegi honek Konstituzioaren kontrakotzat jo ditu, 86.1 artikulua aurkakoak izanik, deslegalizatzaileak baizik ez diren erregelamendu-erreferentziak, inolako epealdirik ez dutenak (29/1982 epaia, Auzitegi Gorenarena, maiatzaren 31koa, 6. oinarri juridikoa; 29/1986 epaia, Auzitegi Gorenarena, otsailaren 28koa, 2 c oinarri juridikoa); aitzitik, ez ditu Konstituzioaren kontrakotzat jo antolamendua-aldaketekin lotutako erregelamendu-gaikuntzak (23/1993 epaia, Konstituzio Auzitegiarena, otsailaren 13koa, 6. oinarri juridikoa), ez eta beharrezkoak direnak ere, teknikoki ezinezkoa baita berehala aplikatzea lege-dekretuaren manua (12/2015 epaia, Konstituzio Auzitegiarena, otsailaren 5ekoa, 5. oinarri juridikoa). Doktrina horren ildoari jarraikiz, honako kasu honetan baino ez da zilegi, Konstituzioaren araberako, errege lege-dekretua erabiltzea: erregelamendu-arauaren bidez ezin zaionean azkar erantzun Gobernuaren ustez konpondu behar den egoerari. Beraz, Gobernuaren asmoa bada errege lege-dekretu batez baliatzea lehen erregelamendu-arauen bidez araututako gai bat antolatzeko, horren

erabileraren justifikazioan azaldu behar du zergatik zen beharrezkoa maila horretako arau erabiltzea dena delako errege lege-dekretua onartu zenean (...)).».

Laburbilduz, errege lege-dekretu hau onartzeko aparteko eta presako beharrezana Gobernuaren judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mendean dago, eta horiek Gobernuari dagozkio (Konstituzio Auzitegia: 61/2018 epaia, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 142/2014 epaia, irailaren 11koa, 3. oinarri juridikoa); erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehentasun politikoak antolatu beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren 2019ko urtarrilaren 30eko epaia, 2208-2019 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa), halako eran non erantzun egokia eman nahi baita beharrezkoa den segurtasun juridikoa bermatzeko eta azaldu den egoeratik herritar kalteberenak babesteko. Horretarako, aparteko eta presako beharrezana dago, eta lege-dekretua erabiliko da, erregelamendu-arauaren bidez ezinezkoa baita konpondu beharrek egoerari azkar erantzutea.

Azaldutako arrazoi guztiek justifikatzen dute, zabal eta arrazoituta, arau hau onartzea (Konstituzio Auzitegiaren 29/1982 epaia, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 111/1983 epaia, abenduaren 2koa, 5. oinarri juridikoa; 182/1997 epaia, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa). Bestalde, beharrezkoa den lotura dago azaldutako urgentziatzko egoeraren eta horri aurre egiteko hartutako neurri zehatzaren artean; beraz, ez da egon adierazitako konstituzio-tresnaren abusuzko erabilerarik edo erabilera arbitrarioirik.

Laburbilduta, errege lege-dekretu honetan ezartzen diren neurrietan aparteko eta presako beharrezanaren inguruabarrak gertatzen dira, Konstituzioaren 86. artikulua arautzen duen bezala. Gainera, lortu nahi diren helburuak ezin dira lortu lege bat presako prozeduraren bidez izapidetuta.

Horrenbestez, egungo egoeran erabat justifikatzen dira bai errege lege-dekretu hau onartu beharrezana aparteko eta presako beharrezana, bai aparteko tresna honetaz baliatzea, zeina, gainera, Gobernuaren judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mendean baitago (Konstituzio Auzitegiaren 61/2018 epaia, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 142/2014 epaia, irailaren 11koa, 3. oinarri juridikoa).

Gainera, errege lege-dekretu honek erabat errespetatzen ditu Konstituzioaren 86. artikuluan ezartzen diren mugak, eta ez dauka eraginik Estatuaren oinarrizko erakundearen antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ez autonomia-erkidegoen araubidean, ez eta hauteskunderi buruzko zuzenbide orokorrean ere.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua ezartzen du administrazio publikoek honako printzipio hauen arabera jokatu behar dutela legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala baliatzean: premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

Adierazi den bezala, errege lege-dekretu hau beharrezkoa da osasun-krisiak espainiarrengan daukan eragin sozialari aurre egiteko; izan ere, pandemiaren ondorioz, lan-merkatua azkar narriatu da eta beharrezana sozialak asko gehitu dira zenbait eremutan eta kolektibo jakin batzuetan (adinekoak, haurrak, nerabeak, gizarte-inklusioa, genero-indarkeriaren kontrako borroka, eta abar). Errege lege-dekretu honen bidez modu eraginkorrean erantzun nahi zaio beharrezana horren erronkari. Izan ere, tresna honetaz baliatuz malgutasunarekin izapidetu ahal izango da dirulaguntzak emateko ezartzen den prozedura, eta, horrela, gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko entitate onuradunek azkar hobetu ahal izango dute beren jarduteko gaitasuna, eta, behar den kasuetan, Gobernuaren lehentasun sozialetara bideratu ahal izango dute. Beste alde batetik, tresna hau proportzionala da egungo egoerarako, beraren bidez beharrezana gero eta handiago bat estali edo arindu nahi baita dauden baliabide eta epealdi egokienak erabiliz, eta dirulaguntzei buruzko arautegian ezartzen diren tresnetan hauxe da egokiena horretarako. Halaber, gardentasunaren printzipioa aplikatuz, argi eta garbi zehazten dira emango diren dirulaguntzen irismena, helburua eta onuradunak. Efizientziaren printzipioari jarraikiz, bestalde, dirulaguntzak emateko hautatzen den modalitateak bermatu egiten du interes orokorreko jarduerak egiteko esleitzen diren baliabideak azkar eta eraginkortasunarekin kudeatzeko gauza direla frogatu duten entitateek dirulaguntza jasoko dutela.

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.1 artikulua babesean ematen da; horren arabera, Estatuak eskumen eskusiboa dauka espainiar guztiak konstituzio-eskubideez baliatzean zein konstituzio-eginbeharrak betetzean berdinak direla bermatzeko oinarritzko baldintzak arautzeko.

Errege lege-dekretu honen izapideetan, txosten bana eskatu zaie Saileko Eskuordeko Kontu Hartzailtzari eta Presidentetzako, Gorteekiko Harremanetako eta Memoria Demokratikoko Ministerioko Araugintzaren Koordinaziorako eta Kalitaterako Bulegoari.

Horren arabera, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimenaz baliatuta, Gizarte Eskubideetako eta 2030 Agendako ministroak proposatuta eta Ministro Kontseiluak 2020ko azaroaren 3ko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

## XEDATZEN DUT:

### 1. artikulua. *Xedea.*

Errege lege-dekretu honen xedea da zuzeneko dirulaguntzak ematea Espainiako eremuko gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko entitate batzuei, bat etorritik Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 22.2.b) artikuluan ezartzen duenarekin eta lege hori garatzen duen erregelamenduaren 66. artikuluan ezartzen denarekin (erregelamendu hori 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen: 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duena).

### 2. artikulua. *Aplikatu beharreko araubide juridikoa.*

Errege lege-dekretu honetan xedatzen dena ez ezik, honako hauetan ezartzen dena ere aplikatuko zaie dirulaguntza horiei: 38/2003 Legea, azaroaren 17koa; Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua (publikotasunaren printzipioa eta lehiaren printzipioa ez beste guztia), eta aplikatu beharreko gainerako arau guztiak.

### 3. artikulua. *Diruz lagundu daitezkeen gastuak.*

Entitate onuradunek gizarte-interesekotzat jotzen diren interes orokorreko proiektuak egiteko eta entitate horien jardun-gastuak ordaintzeko dira dirulaguntza horiek.

### 4. artikulua. *Entitate onuradunak.*

1. Dirulaguntzok eranskinean agertzen diren gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko entitateentzat dira. Eranskinean, bakoitzak gehienez jasoko duen diru kopurua zehazten da.

2. Gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko entitateen federazioen, konfederazioen, batasunen eta plataformen kasuan, horien barruan dauden estatu-eremuko entitateek jaso dezakete dirulaguntza. Onuradunak dirulaguntzak antolatzen dituen ebazpenean izendatuko dira, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 11.2 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik.

### 5. artikulua. *Dirulaguntzak emateko prozedura.*

1. Dirulaguntza hauek Gizarte Eskubideen estatu-idazkariaren ebazpen baten bidez emango dira. Ebazpen horretan, aplikatuko diren baldintzak eta konpromisoak zehaztuko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatzen duenarekin bat etorritik.

2. Ebazpenean ezarri ahal izango da dirulaguntza aurreordainketa bakarrean egingo dela, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 34.4 artikuluan eta hura garatzen duen erregelamenduan ezartzen duenarekin bat etorritik.

6. artikulua. *Dirulaguntzen zenbatekoa eta finantzaketa.*

Gehienez, 26.404.089,44 euro izango da dirulaguntzen guztirako zenbatekoa. Eranskinean azaltzen diren entitateek bertan zehazten den diru kopurua jasoko dute Gizarte Eskubideetako eta 2030 Agendako Ministerioaren aurrekontuaren kargura.

Xedapen gehigarri bakarra. *Kreditu-gerakinak gehitzea.*

Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 58. artikuluan xedatzen duenaren arabera, eta kontuan edukita kasu honetako inguruabarrak ezohikoak direla, dirulaguntza hauek finantzatzeko kreditu-gerakinak 2021eko aurrekontu-ekitaldiko kredituari gehitu ahal izango zaizkio.

Azken xedapenetako lehena. *7/2013 Errege Lege Dekretua aldatzea, ekainaren 28koa, Tributuei, aurrekontuei eta ikerketa, garapen eta berrikuntza sustatzeari buruzko premiazko neurriei buruzkoa.*

7/2013 Errege Lege Dekretua aldatzen da, ekainaren 28koa, Tributuei, aurrekontuei eta ikerketa, garapen eta berrikuntza sustatzeari buruzko premiazko neurriei buruzkoa; 2. artikulua aldatzen da, hain zuzen, eta honela gelditzen da:

«1. Hauek dira interes sozialekotzat jotako interes orokorreko jardueren ardatzak, interes sozialekotzat jotako interes orokorreko helburuetarako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan izendatutako ehunekoarekin finantzatutako laguntzen oinarri arautzaileak zehazteko orduan halakotzat joko direnak:

- a) Arreta soziosanitario osoa behar duten pertsonentzako arreta.
- b) Hezkuntza-beharrak edo laneratzeko beharrak dituzten pertsonentzako arreta.
- c) Herritarren segurtasunaren eta delinkuentziaren prebentzioa sustatzea.
- d) Ingurumena babestea.
- e) Garapenerako lankidetzak.
- f) Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea sustatzea eta modernizatzea.

2. Aurreko apartatuan finkatutako ardatzen esparruan, eta Espainiako Estatuaren eta Vatikanoren arteko gai ekonomikoei buruzko 1979ko urtarrilaren 3ko Akordioaren II. artikuluan aurreikusitakoa gauzatzeko, interes orokorreko jardueretara bideratuko dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren errendimenduaren ehunekoaren esleipenetik lortzen diren eta 2013. urtean eta hurrengoetan gizarte-intereseko beste helburu batzuetarako banatzekoak diren zenbatekoak. Horretarako, pertsonen eta gizarte osoaren bizi-kalitatea hobetzeko eta ingurunea babesteko eta artatzeko diren eta erregelamenduz gizarte-interesekotzat jotzen diren jarduerak hartuko dira interes orokorrekotzat. Ehuneko hori urtero-urtero ezarriko da Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean.

Era berean, Espainiako Gurutze Gorriak eta aurreko apartatuan aipatzen diren jarduerak gauzatzeko dituzten gobernuz kanpoko gainerako entitate edo erakundeek ere jaso ahal izango dituzte laguntza ekonomikoak eta dirulaguntzak interes orokorreko beste helburu batzuetarako izendatzen diren kredituen kargura».

Azken xedapenetako bigarrena. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.1 artikulua babesean ematen da; artikulua horren arabera, Estatuak eskumen eskusiboa dauka espainiar guztiak konstituzio-eskubideez baliatzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean berdinak direla bermatzeko oinarritzko baldintzak arautzeko.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Madrilen, 2020ko azaroaren 3an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN

## ERANSKINA

## Entitate onuradunak eta dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak

Entitatea	Zenbatekoa
ESPAINIAKO GURUTZE GORRIA	2.876.208,78 euro
CONFEDERACIÓN ESPAÑOLA DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD FÍSICA Y ORGÁNICA COCEMFE	1.114.993,27 euro
CÁRITAS ESPAÑOLA	811.977,69 euro
PLENA INCLUSIÓN	676.414,46 euro
FUNDACIÓN SECRETARIADO GITANO	634.357,57 euro
ASOCIACIÓN PROYECTO HOMBRE	476.357,98 euro
SALUD MENTAL	670.538,83 euro
ESPAINIAN POBREZIAREN ETA GIZARTE-BAZTERKETAREN AURKA BORROKATZEKO EUROPAKO SAREA	375.539,68 euro
MÉDICOS DEL MUNDO	355.240,24 euro
UNIÓN DE ASOCIACIONES FAMILIARES (UNAF)	355.240,24 euro
PLATAFORMA DEL VOLUNTARIADO DE ESPAÑA (PVE)	345.090,52 euro
FUNDACIÓN RED DE APOYO A LA INTEGRACIÓN SOCIOLABORAL (RAIS)	334.940,80 euro
COLECTIVOS DE ACCIÓN SOLIDARIA	331.790,95 euro
YOUNG MEN'S CHRISTIAN ASSOCIATION (YMCA)	326.274,06 euro
FUNDACIÓN ACCIÓN CONTRA EL HAMBRE	304.491,63 euro
FUNDACIÓN UNIVERSIDAD CARLOS III	265.026,47 euro
FUNDACIÓN DIAGRAMA INTERVENCIÓN	255.011,74 euro
FUNDACIÓN ONCE PARA LA ATENCIÓN DE PERSONAS CON SORDOCEGUERA	253.743,03 euro
COORDINADORA ESTATAL VIH - SIDA (CESIDA)	253.743,03 euro
CONFEDERACIÓN AUTISMO ESPAÑA	253.337,04 euro
FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES DE ASISTENCIA A VÍCTIMAS DE VIOLENCIA SEXUAL Y DE GÉNERO	253.198,91 euro
FUNDACIÓN PADRE GARRALDA - HORIZONTES ABIERTOS	224.183,05 euro
FUNDACIÓN LA MERCED MIGRACIONES	202.994,42 euro
ASOCIACIÓN COMISIÓN CATÓLICA ESPAÑOLA DE MIGRACIÓN (ACCEM)	202.994,42 euro
FUNDACIÓN CEPAIM - ACCIÓN INTEGRAL CON MIGRANTES	202.994,42 euro
UNIÓN ESPAÑOLA DE ASOCIACIONES Y ENTIDADES DE ATENCIÓN AL DROGODEPENDIENTE	202.193,63 euro
FEDERACIÓN DE MUJERES PROGRESISTAS	196.360,47 euro
FUNDACIÓN EGUÍA CAREAGA	187.819,57 euro
DIACONIA	185.516,60 euro



Entitatea	Zenbatekoa
FUNDACIÓN ATENEA GRUPO GID	183.992,37 euro
FUNDACIÓN ANAR	178.523,44 euro
FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE FAMILIAS NUMEROSAS (FEFN)	177.620,12 euro
FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE ENFERMEDADES RARAS	168.485,37 euro
CONFEDERACIÓN DE CENTROS DE DESARROLLO RURAL	167.470,40 euro
COMISIÓN PARA LA INVESTIGACIÓN DE MALOS TRATOS A MUJERES	166.814,63 euro
FEDERACIÓN DE BANCOS DE ALIMENTOS	166.783,26 euro
GARUNEKO PARALISIA DUTEN PERTSONEN ETA ANTZEKOEN ARRETARAKO ERAKUNDEEN ESPAINIAKO KONFEDERAZIOA (ASPACE)	161.279,07 euro
FEDERACIÓN DE ENTIDADES CON PROYECTOS Y PISOS ASISTIDOS	157.320,68 euro
FUNDACIÓN DE SOLIDARIDAD AMARANTA	156.664,91 euro
MOVIMIENTO POR LA PAZ, EL DESARME Y LA LIBERTAD	152.245,82 euro
ASOCIACIÓN REALIDADES PARA LA INTEGRACIÓN SOCIAL	152.245,82 euro
ASOCIACIÓN NACIONAL AFAR	152.245,82 euro
ASOCIACIÓN ESPAÑOLA CONTRA EL CÁNCER	152.245,82 euro
HERMANAS OBLATAS DEL SANTÍSIMO REDENTOR CONGREGACIÓN	151.119,20 euro
FUNDACIÓN ESPLAI, CIUDADANÍA COMPROMETIDA	138.594,25 euro
FUNDACIÓN CRUZ BLANCA	131.224,50 euro
PLATAFORMA DE ORGANIZACIONES DE INFANCIA	126.871,51 euro
ASOCIACIÓN PROVIVIENDA	137.104,38 euro
ASOCIACIÓN OPORTUNIDADES DE VIDA	118.067,78 euro
PLATAFORMA DE ONG DE ACCIÓN SOCIAL	115.637,01 euro
FEDERACIÓN MUJERES JÓVENES	115.162,70 euro
FUNDACIÓN CONFEDERACIÓN ESTATAL DE PERSONAS SORDAS (CNSE)	114.184,36 euro
FUNDACIÓN PARA LA CONVIVENCIA ASPACIA	112.550,26 euro
PLATAFORMA DEL TERCER SECTOR	105.124,55 euro
ESCLEROSIS MÚLTIPLE ESPAÑA	102.512,18 euro
LIGA ESPAÑOLA DE LA EDUCACIÓN Y LA CULTURA POPULAR	101.497,21 euro
ASOCIACIÓN ARCO IRIS	100.370,59 euro
FEDERACIÓN DE MUJERES Y FAMILIAS DEL ÁMBITO RURAL (AMFAR)	94.863,26 euro
FEDERACIÓN NACIONAL DE ASOCIACIONES DE MUJERES SEPARADAS Y DIVORCIADAS	94.863,26 euro

Entitatea	Zenbatekoa
DOWN ESPAÑA - FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE INSTITUCIONES PARA EL SÍNDROME DE DOWN	92.362,46 euro
ASOCIACIÓN DE MUJERES PROGRESISTAS «VICTORIA KENT»	90.691,73 euro
ASOCIACIÓN APLEC INCLUSIÓN MÁS IGUALDAD	88.079,28 euro
CONFEDERACIÓN ESPAÑOLA DE FAMILIAS CON PERSONAS SORDAS (FIAPAS)	107.807,62 euro
FEDERACIÓN DE SCOUTS-EXPLORADORES DE ESPAÑA (ASDE)	86.272,63 euro
FUNDACIÓN CERMI MUJERES	84.713,54 euro
ORGANIZACIÓN NO GUBERNAMENTAL DE DESARROLLO FIET GRATIA	82.101,09 euro
FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE JUSTICIA RESTAURATIVA	81.197,77 euro
COMITÉ PARALÍMPICO ESPAÑOL (CPE)	80.805,99 euro
ALDEAS INFANTILES SOS DE ESPAÑA	76.122,91 euro
ASOCIACIÓN DE PERSONAS CON LESIÓN MEDULAR Y OTRAS DISCAPACIDADES FÍSICAS-FEDERACIÓN NACIONAL ASPAYM	86.794,05 euro
H-AMIKECO ASOCIACIÓN PARA LA PROMOCIÓN DE LAS RELACIONES HUMANAS	74.923,32 euro
FUNDACIÓN PSICOLOGÍA SIN FRONTERAS	74.923,32 euro
PASTORAL PENITENCIARIA DE LA CONFERENCIA EPISCOPAL ESPAÑOLA	74.923,32 euro
ASOCIACIÓN CLARA CAMPOAMOR	74.563,82 euro
FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES DE MUJERES RURALES	74.563,82 euro
ASOCIACIÓN DE FAMILIAS Y MUJERES DEL MEDIO RURAL (AFAMMER)	74.563,82 euro
UNIÓN DEMOCRÁTICA DE PENSIONISTAS Y JUBILADOS DE ESPAÑA (UDP)	71.813,36 euro
CONFEDERACIÓN DE CENTROS JUVENILES DON BOSCO DE ESPAÑA	71.048,05 euro
MOVIMIENTO SCOUT CATÓLICO	71.048,05 euro
FUNDACIÓN TOMILLO	71.048,05 euro
SERVICIO DOMÉSTICO ACTIVO (SEDOAC)	68.931,16 euro
ASOCIACIÓN PARA LA GESTIÓN DE LA INTEGRACIÓN SOCIAL	66.876,51 euro
UNIÓN ROMANÍ	66.818,39 euro
FUNDACIÓN JUAN CIUDAD	65.973,19 euro
FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES PARA LA PREVENCIÓN DEL MALTRATO INFANTIL	65.973,19 euro
FUNDACIÓN UNICEF COMITÉ ESPAÑOL	65.973,19 euro
ASOCIACIÓN DE MUJERES JURISTAS THEMIS	64.414,10 euro
ASOCIACIÓN PARA LA PREVENCIÓN, REINSERCIÓN Y ATENCIÓN A LA MUJER PROSTITUIDA	64.414,10 euro

Entitatea	Zenbatekoa
CONFEDERACIÓN ESTATAL DE PERSONAS SORDAS (CNSE)	68.971,62 euro
CONFEDERACIÓN ESPAÑOLA DE ORGANIZACIONES DE MAYORES (CEOMA)	62.509,91 euro
FUNDACIÓN NANTIK LUM	60.898,33 euro
CONFEDERACIÓN ESPAÑOLA DE ASOCIACIONES DE PADRES Y MADRES DE ALUMNOS (CEAPA)	60.898,33 euro
ASOCIACIÓN IN VIA	60.898,33 euro
ASOCIACIÓN HORUELO	60.898,33 euro
CONFEDERACIÓN DE FEDERACIONES Y ASOCIACIONES DE VIUDAS HISPANIA	59.339,24 euro
CONFEDERACIÓN NACIONAL DE MUJERES EN IGUALDAD	59.339,24 euro
FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES DE MUJERES ARENA Y LAURISILVA	59.339,24 euro
ASOCIACIÓN DE COLABORADORES CON LAS PRESAS	58.720,10 euro
CONFEDERACIÓN NACIONAL DE JUBILADOS Y PENSIONISTAS DE ESPAÑA (CONJUPES)	57.435,30 euro
COORDINADORA ESTATAL DE PLATAFORMAS SOCIALES SALESIANAS	55.823,47 euro
FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE DAÑO CEREBRAL	30.449,16 euro
CONFEDERACIÓN ESPAÑOLA DE ASOCIACIONES DE FAMILIARES DE PERSONAS CON ALZHEIMER Y OTRAS DEMENCIAS (CEAFA)	54.282,90 euro
ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE MUJERES SEPARADAS Y DIVORCIADAS «CARMEN GARCÍA CASTELLON»	54.264,38 euro
ASOCIACIÓN MUJERES OPAÑEL	54.264,38 euro
FEDERACIÓN DE PLANIFICACIÓN FAMILIAR ESTATAL	54.264,38 euro
FEDERACIÓN MUJER RURAL	54.264,38 euro
FUNDACIÓN TRIÁNGULO	53.793,52 euro
SOLIDARIDAD INTERGENERACIONAL, ASOCIACIÓN DE PERSONAS MAYORES Y FAMILIARES	52.668,25 euro
CONFEDERACIÓN ESPAÑOLA DE AULAS DE LA TERCERA EDAD (CEATE)	51.361,16 euro
BANCO FARMACÉUTICO, ASSOCIACIO	50.748,61 euro
FUNDACIÓN AGRICULTORES SOLIDARIOS	50.748,61 euro
UNIÓN DE ASOCIACIONES DE TRABAJADORES AUTÓNOMOS Y EMPRENDEDORES	50.748,61 euro
ASOCIACIÓN COLUMBARES	50.748,61 euro
ASOCIACIÓN INTERNACIONAL DEL TELÉFONO DE LA ESPERANZA	50.748,61 euro
ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE RECUPERADORES DE LA ECONOMÍA SOCIAL Y SOLIDARIA	50.748,61 euro
FUNDACIÓN SANTA MARÍA LA REAL DEL PATRIMONIO HISTÓRICO, UN PROYECTO DESDE CASTILLA Y LEÓN	50.748,61 euro

Entitateak	Zenbatekoa
FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE PADRES DE NIÑOS CON CÁNCER	50.748,61 euro
FUNDACIÓN DE AYUDA CONTRA LA DROGADICCIÓN	50.748,61 euro
MOVIMIENTO CONTRA LA INTOLERANCIA	50.748,61 euro
ASOCIACIÓN ESLABÓN, INICIATIVAS DE PROMOCIÓN DE EMPLEO	50.748,61 euro
ASOCIACIÓN MUJERES PARA LA SALUD	49.301,16 euro
UNIÓN ESTATAL DE JUBILADOS Y PENSIONISTAS DE UGT	49.208,29 euro
FEDERACIÓN ESTATAL DE PENSIONISTAS Y JUBILADOS CCOO	49.208,29 euro
FUNDACIÓN UNIÓN PARA LA ASISTENCIA E INTEGRACIÓN DE LA TERCERA EDAD (UNIATE)	48.977,63 euro
FEDERACIÓN ESTATAL DE LESBIANAS, GAYS, TRANS Y BISEXUALES	48.740,28 euro
CONFEDERACIÓN ESTATAL DE ASOCIACIONES Y FEDERACIONES DE ALUMNOS Y EXALUMNOS DE LOS PROGRAMAS UNIVERSITARIOS DE MAYORES (CAUMAS)	47.593,65 euro
FUNDACIÓN SAVE THE CHILDREN	47.592,04 euro
ASOCIACIÓN DE HOGARES PARA NIÑOS PRIVADOS DE AMBIENTE FAMILIAR NUEVO FUTURO	45.673,74 euro
FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES DE CONSUMIDORES Y USUARIOS DE LOS MEDIOS (ICMEDIA)	45.673,74 euro
FUNDACIÓN ABRACADABRA DE MAGOS SOLIDARIOS	45.673,74 euro
FUNDACIÓN AMIGÓ	45.673,74 euro
FUNDACIÓN EDUCACIÓN Y COOPERACIÓN (EDUCO)	45.673,74 euro
FUNDACIÓN MÁRGENES Y VÍNCULOS	45.673,74 euro
FUNDACIÓN VICKI BERNADET	45.673,74 euro
FUNDACIÓN YEHUDI MENUHIN	45.673,74 euro
ASOCIACIÓN INICIATIVAS SOLIDARIAS	45.673,74 euro
REAL HERMANDAD DE VETERANOS DE LAS FUERZAS ARMADAS Y GUARDIA CIVIL (RHERFEVAS)	44.790,29 euro
FUNDACIÓN PADRINOS DE LA VEJEZ	44.671,91 euro
ASOCIACIÓN DE FEDERACIONES Y ASOCIACIONES DE EMPRESARIAS DEL MEDITERRÁNEO	43.211,33 euro
ASOCIACIÓN DE MADRES SOLAS	43.211,33 euro
ASOCIACIÓN DE MUJERES CON DISCAPACIDAD XARXA	43.211,33 euro
ASOCIACIÓN DE MUJERES INVESTIGADORAS Y TECNÓLOGAS	43.211,33 euro
ASOCIACIÓN DE MUJERES LIBRES Y COMBATIVAS	43.211,33 euro
ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE MUJERES PROFESIONALES DE LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN	43.211,33 euro
ASOCIACIÓN LA SUR	43.211,33 euro
ASOCIACIÓN LEONESA «SIMONE DE BEAUVOIR»	43.211,33 euro

Entitatea	Zenbatekoa
ASOCIACIÓN NACIONAL DE MUJERES EMPRENDEDORAS Y AUTÓNOMAS	43.211,33 euro
ASOCIACIÓN OTRO TIEMPO	43.211,33 euro
CONFEDERACIÓN CERES	43.211,33 euro
COORDINADORA DE ORGANIZACIONES DE MUJERES PARA LA PARTICIPACIÓN Y LA IGUALDAD	43.211,33 euro
CREACIÓN POSITIVA	43.211,33 euro
FEDERACIÓN CATÓLICA ESPAÑOLA DE SERVICIOS A LA JUVENTUD FEMENINA	43.211,33 euro
FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES DE MADRES SOLTERAS	43.211,33 euro
FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES DE MUJERES RURALES SOL RURAL/FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES Y COLECTIVOS DE MUJERES DE LA COMARCA	43.211,33 euro
FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE MUJERES DIRECTIVAS, EJECUTIVAS, PROFESIONALES Y EMPRESARIAS	43.211,33 euro
FEDERACIÓN INTERNACIONAL DE EMPRESARIAS BPW SPAIN	43.211,33 euro
FUNDACIÓN CALALA FONDO DE MUJERES	43.211,33 euro
FUNDACIÓN DE FAMILIAS MONOPARENTALES ISADORA DUNCAN	43.211,33 euro
FUNDACIÓN MUJERES	43.211,33 euro
ASOCIACIÓN MUJERES PARA EL DIÁLOGO Y LA EDUCACIÓN	43.211,33 euro
PLATAFORMA ANDALUZA DE APOYO AL LOBBY EUROPEO DE MUJERES	43.211,33 euro
PROFESSIONAL WOMEN'S NETWORK	43.211,33 euro
UNIÓN DE ASOCIACIONES DE MUJERES AUTÓNOMAS Y EMPRENDEDORAS	43.211,33 euro
UNIÓN DE MUJERES AGRICULTORAS Y GANADERAS	43.211,33 euro
LOBBY EUROPEO DE MUJERES-LEM ESPAÑA	43.211,33 euro
FUNDACIÓN PLAN INTERNATIONAL ESPAÑA	42.628,83 euro
ASOCIACIÓN DE FAMILIAS DE MENORES TRANS (CHRYSALIS)	42.628,83 euro
FEDERACIÓN NACIONAL DE ASOCIACIONES DE MUJERES GITANAS «KAMIRA»	42.425,67 euro
FEDERACIÓN ESTATAL DE ASOCIACIONES PROFESIONALES DE AGENTES Y PROMOTORAS DE IGUALDAD DE OPORTUNIDADES	42.425,67 euro
FUNDACIÓN PROLIBERTAS	41.613,86 euro
NUEVO HOGAR BETANIA	41.502,21 euro
ADORATRICES ESCLAVAS DEL SANTÍSIMO SACRAMENTO Y CARIDAD	41.502,21 euro
COMITÉ ESPAÑOL DE REPRESENTANTES DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD	46.476,06 euro
CONFEDERACIÓN CATÓLICA NACIONAL DE PADRES DE FAMILIA Y PADRES DE ALUMNOS (CONCAPA)	40.598,88 euro

Entitateak	Zenbatekoa
COOPERACIÓN INTERNACIONAL (CIONG)	40.598,88 euro
FUNDACIÓN FRANCISCO FERRER GUARDIA	40.598,88 euro
FUNDACIÓN MASHUMANO	40.598,88 euro
CONFEDERACIÓN ESTATAL DE MAYORES ACTIVOS (CONFEMAC)	39.366,64 euro
ASOCIACIÓN EVANGÉLICA NUEVA VIDA	38.772,66 euro
ASOCIACIÓN EDAD DORADA. MENSAJEROS DE LA PAZ	38.059,54 euro
FUNDACIÓN ALZHEIMER ESPAÑA (FAE)	37.213,77 euro
DIDANIA. FEDERACIÓN DE ENTIDADES CRISTIANAS DE TIEMPO LIBRE	36.539,00 euro
ASOCIACIÓN MUJERES EN ZONA DE CONFLICTO (MZC)	36.427,35 euro
FUNDACIÓN CIBERVOLUNTARIOS	36.427,35 euro
FUNDACIÓN PILARES	35.626,03 euro
ORGANIZACIÓN JUVENIL ESPAÑOLA	35.524,02 euro
RED ESPAÑOLA DE DESARROLLO RURAL	35.524,02 euro
CENTRO DE INICIATIVAS PARA LA COOPERACIÓN BATÁ	35.524,02 euro
FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE ASOCIACIONES NAGUSILAN	35.078,12 euro
FUNDACIÓN 26 DE DICIEMBRE	33.494,08 euro
FUNDACIÓN HELPAGE INTERNACIONAL ESPAÑA	32.754,27 euro
FUNDACIÓN AMIGOS DE LOS MAYORES	32.754,27 euro
FUNDACIÓN DEL HOMBRE	31.677,84 euro
FUNDACIÓN APIP-ACAM	31.352,49 euro
FUNDACIÓN ADSIS	31.261,14 euro
FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES DE CULTURA Y OCIO (FACOM)	31.193,24 euro
ASOCIACIÓN SOCIO-CULTURAL DE LAS MINORÍAS ÉTNICAS «UNGA»	30.952,25 euro
PLATAFORMA REPRESENTATIVA ESTATAL DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD FÍSICA (PREDIF)	35.089,42 euro
FEDERACIÓN NACIONAL DE PUNTOS DE ENCUENTRO PARA EL DERECHO DE VISITAS (FEDEPE)	30.449,16 euro
FUNDACIÓN ATYME ATENCIÓN Y MEDIACIÓN PARA EL CAMBIO	30.449,16 euro
HELSINKI ESPAÑA-DIMENSIÓN HUMANA	30.449,16 euro
FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE JUGADORES DE AZAR REHABILITADOS	30.449,16 euro
KIFKIF-ENTRE IGUALES-ASOCIACIÓN DE MIGRANTES Y REFUGIADOS LGTB (LESBIANAS, GAYS, BISEXUALES Y TRANSEXUALES) DE LA COMUNIDAD DE MADRID	30.449,16 euro
LARES ASOCIACIÓN: UNIÓN DE RESIDENCIAS Y SERVICIOS DEL SECTOR SOLIDARIO	30.019,08 euro

Entitateak	Zenbatekoa
ASOCIACIÓN SERVICIO INTERDISCIPLINAR DE ATENCIÓN A LAS DROGODEPENDENCIAS	29.870,31 euro
FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES DE MUJERES GITANAS FAKALI	29.530,24 euro
AMBIT	29.281,70 euro
ORGANIZACIÓN SOCIAL DE MAYORES DE IZQUIERDAS	28.565,24 euro
RED ACOGE	28.419,22 euro
PLATAFORMA KHETANÉ DEL MOVIMIENTO ASOCIATIVO GITANO DEL ESTADO ESPAÑOL	26.844,23 euro
PSICÓLOGOS SIN FRONTERAS	26.661,06 euro
AUXILIARES DEL BUEN PASTOR VILLA TERESITA	26.277,63 euro
SAVE A GIRL, SAVE A GENERATION	25.719,83 euro
ASOCIACIÓN DE FAMILIAS CONTRA LA INTOLERANCIA X GÉNERO (AMPGYL)	25.374,30 euro
ASOCIACIÓN DE ENTIDADES JÓVENES E INCLUSIÓN	25.374,30 euro
ASOCIACIÓN PUNTO OMEGA	25.374,30 euro
CONFEDERACIÓN ESTATAL DE ASOCIACIONES DE ESTUDIANTES	25.374,30 euro
FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES DE PERSONAS SORDOCIEGAS DE ESPAÑA	162.478,68 euro
FUNDACIÓN DE EDUCACIÓN PARA LA SALUD	25.374,30 euro
SIDA STUDI	25.374,30 euro
ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE MEDIACIÓN (ASEMED)	25.374,30 euro
ACCIÓN FAMILIAR	24.658,63 euro
HERMANDAD DE JUBILADOS DE LOS MINISTERIOS DE COMERCIO, ECONOMÍA Y HACIENDA	22.280,89 euro
CONFEDERACIÓN DE ASOCIACIONES DE JUBILADOS, RETIRADOS Y PENSIONISTAS (CAI)	21.938,10 euro
ASOCIACIÓN MENSAJEROS DE LA PAZ	21.314,41 euro
ENTRECULTURAS	21.314,41 euro
FEDERACIÓN INJUCAM PARA LA PROMOCIÓN DE LA INFANCIA Y LA JUVENTUD	21.314,41 euro
FUNDACIÓN MENIÑOS	21.314,41 euro
FUNDACIÓN PARA LA DEFENSA DE LOS USUARIOS DE MEDIOS AUDIOVISUALES APRENDER A MIRAR	21.314,41 euro
MENUDOS CORAZONES	21.314,41 euro
ASOCIACIÓN MUCHACHOS CIUDAD ESCUELA DE FORMACIÓN SOCIOCULTURAL (CEMU)	21.314,41 euro
PROYECTO SOLIDARIO-ASOCIACIÓN INTERNACIONAL PARA LA COOPERACIÓN AL DESARROLLO Y AYUDA A LA INFANCIA	21.314,41 euro
SOCIEDAD ESPAÑOLA DE PEDIATRÍA SOCIAL	21.314,41 euro
ASOCIACIÓN ALMA CONTRA LA VIOLENCIA DE GENERO	21.202,77 euro

Entitateak	Zenbatekoa
ACLAD, ASOCIACIÓN DE AYUDA AL DROGODEPENDIENTE	21.202,77 euro
COMISIÓN ESPAÑOLA DE AYUDA AL REFUGIADO (CEAR)	21.202,77 euro
ASOCIACIÓN NACIONAL PRESENCIA GITANA	20.524,21 euro
FEDERACIÓN AUTONÓMICA DE ASOCIACIONES GITANAS DE LA C. VALENCIANA (FAGA)	20.524,21 euro
FEDERACIÓN MARANATHA DE ASOCIACIONES GITANAS	20.524,21 euro
FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES GITANAS DE CATALUÑA (FAGIC)	20.524,21 euro
ASOCIACIÓN DE ENSEÑANTES CON GITANOS	20.524,21 euro
FEDERACIÓN ASOCIACIONES GITANAS DE ARAGÓN (FAGA)	20.524,21 euro
FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES GITANAS DE CASTILLA Y LEÓN	20.524,21 euro
ASOCIACIÓN DE MUJERES GITANAS «ALBOREA»	20.524,21 euro
FUNDACIÓN MÁS FAMILIA	20.299,44 euro
FUNDACIÓN HAZLOPOSIBLE	20.299,44 euro
JUVENTUD OBRERA CRISTIANA	20.299,44 euro
JUVENTUD RURAL DE UPA-UPA JOVEN	20.299,44 euro
DOMUS PACIS CASAL DE LA PAU	20.299,44 euro
CONFEDERACIÓN POR EL MEJOR INTERÉS DE LA INFANCIA (CEMIN)	18.269,50 euro
CONFRATERNIDAD CARCELARIA DE ESPAÑA	18.269,50 euro
ASOCIACIÓN DE JUBILADOS, PREJUBILADOS Y PENSIONISTAS (MCA-APJP)	17.710,45 euro
FUNDACIÓN CARLOS SANZ	17.254,53 euro
HERMANDAD DE AMIGOS DEL BENEMÉRITO CUERPO DE LA GUARDIA CIVIL (HABECU)	17.024,88 euro
ASOCIACIÓN DE PROFESORES UNIVERSITARIOS JUBILADOS (ASPUR)	16.567,84 euro
FUNDACIÓN SALUD Y COMUNIDAD	16.239,55 euro
HIJAS DE LA CARIDAD DE SAN VICENTE DE PAÚL	16.127,91 euro
ASOCIACIÓN RUMIÑAHUI	16.127,91 euro
ASOCIACIÓN ITXAROPEN GUNE LUGAR DE ESPERANZA	16.127,91 euro
ASOCIACIÓN IN GENERO (INTERCULTURALIDAD Y GÉNERO)	16.127,91 euro
AMIGOS DE LA TIERRA ESPAÑA-JUVENTUD	15.224,58 euro
ASOCIACIÓN FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE UNIVERSIDADES POPULARES	15.224,58 euro
COMITÉ ESPAÑOL PARA INTERCAMBIO DE ESTUDIANTES TÉCNICOS	15.224,58 euro
CONFEDERACIÓN DE JUVENTUDES MUSICALES DE ESPAÑA	15.224,58 euro
FEDERACIÓN ERASMUS STUDENT NETWORK ESPAÑA	15.224,58 euro
INTEGRA VOLUNTARIADO JOVEN	15.224,58 euro



Entitateak	Zenbatekoa
RED ESPAÑOLA DE ENTIDADES POR EL EMPLEO, RED ARAÑA	15.224,58 euro
OFERTA CULTURAL DE UNIVERSITARIOS MAYORES (OFECUM)	13.711,32 euro
SOLIDARIOS PARA EL DESARROLLO	13.194,64 euro
FUNDACIÓN PATRONATO EUROPEO DEL MAYOR Y DE LA SOLIDARIDAD INTERGENERACIONAL (PEM)	12.797,23 euro
FUNDACIÓN MANANTIAL	12.318,19 euro
ASOCIACIÓN DEMÉTER POR LA IGUALDAD	11.053,05 euro
ASOCIACIÓN DONES NO ESTÁNDARDS	11.053,05 euro
ASOCIACIÓN TRABE	11.053,05 euro
FUNDACIÓN MATRIX, INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO SOSTENIBLE	11.053,05 euro
ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE PALABRA CULTA Y BUENAS COSTUMBRES	10.626,27 euro
ASOCIACIÓN DUAL	10.149,72 euro
FUNDACIÓN BIENESTAR Y DESARROLLO	10.149,72 euro
ASOCIACIÓN DIANOVA ESPAÑA	10.149,72 euro
FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE ENFERMOS ALCOHÓLICOS Y FAMILIARES, A.N.D.A.R.	10.149,72 euro
CONFEDERACIÓN DE ALCOHÓLICOS, ADICTOS EN REHABILITACIÓN Y FAMILIARES DE ESPAÑA	10.149,72 euro
VIDA ASCENDENTE-MOVIMIENTO DE APOSTOLADO SEGLAR DE JUBILADOS Y MAYORES	9.712,18 euro
ASOCIACIÓN CULTURAL Y SOCIAL DE POLICÍAS (ACUSPOL)	8.569,57 euro
PROGRAMA DE REINSERCIÓN DE MUJERES	6.089,83 euro
FUNDACIÓN CARMEN PARDO-VALCARCE	6.089,83 euro
ASOCIACIÓN PARA LA ATENCIÓN INTEGRAL DE MUJERES EN SITUACIÓN DE RIESGO (AIMUR)	6.089,83 euro
ASOCIACIÓN GIZARTERAKO ACOGIDA Y ORIENTACIÓN A LA MUJER PROSTITUIDA	6.089,83 euro
ASOCIACIÓN FARAXA POLA ABOLICIÓN DA PROSTITUCIÓN	6.089,83 euro
ASOCIACIÓN AMIGA POR LOS DERECHOS HUMANOS DE LAS MUJERES	6.089,83 euro
ECOS DO SUR	6.089,83 euro
HERMANAS JOSEFINAS DE LA SANTÍSIMA TRINIDAD	6.089,83 euro
ASOCIACIÓN DE AMIGOS DE LA UNIVERSIDAD DE MAYORES. EXPERIENCIA RECÍPROCA (UMER)	6.089,83 euro
INICIATIVES SOLIDÀRIES	6.089,83 euro
ASOCIACIÓN EN DEFENSA DE LOS DERECHOS DE LAS MUJERES EN SITUACIÓN DE EXCLUSIÓN (GENERA)	6.089,83 euro
ASOCIACIÓN PRO-RECUPERACIÓN DE MARGINADOS (APROMAR)	6.089,83 euro

Entitatea	Zenbatekoa
ASOCIACIÓN MARILLAC	6.089,83 euro
ASOCIACIÓN PARA LA MEDIACIÓN, EL ENCUENTRO Y LA ESCUCHA	6.089,83 euro